

ERRALDOI ETA BURUHANDIEN IX. BILKURA

José Luis Insausti Urigoitia

2006ko uztailaren 22an, Madalen egunean, Erraldoi eta buruhandien IX. bilkura ospatu zen, aurreko edizioetan bezala Landare Elkarateak antolatua. Egun handia izan zen Erretereriako biztanle guztientzat zein gure zaindariaren egunean bertaratu zirenentzat. Denak Erretereriako pertsonaia handi hauek kale eta plazetan egindako desfile eta dantza zoragarriak ikusteko aukera izan genuen. Musika bandak ere ikusi ahal izan genituen, bakoitza bere konpartsa-ekin, Palentziako kontserbatorioetako musika bandak edo Carmanzana de Tera Zamorako musika banda, esaterako. Gure herriko txistulari bandak ere nabarmendu nahi nituzke, hala nola Txistularien Udal Banda, Ereintzako Txistulariak, Orereta-Erretereriako Udal Kontserbatorioko Txistulariak, Lezoko Txistulariak eta Landareko Txistulariak. Denak bikain aritu ziren. Iazko urtean hainbat berrikuntza izan genituen; izan ere, aurreko urteetako erraldoien eta buruhandien bilkuretara ohikoak ez ziren ekintzak gauzatu ziren: Madalenetako kontzertua bukatuta, bilkuran parte hartu zuten erraldoi eta buruhandi guztiek Centenarioa dantzatu zuten Foru Plazan. Baina berrikuntza horien artean gure konpartsak eskainitakoa aipatu nahi nuke: bertan bildu ginen guztioi zein Santiago Vicente Altxuren senitartekoei gure erraldoiek dantza bikainekin helarazi ziguten maitasun eta emozioarengatik. Era horretan bat egin genuen Erretereria-Oreretako Musika Kultur Elkarateak Altxuren oroimenez eskaini zuen omenaldi kontzertuarekin.

Bigarren berrikuntza izan zen Madalen egunean, arratsaldean ospatzen den danborrada haur festari ikusgarritasun eta kolore handiagoa ematea. Izan ere, Erretereriako kaleetan zehar erraldoiak eta buruhandiak bezalako pertsonaia handiak danbor-jole txiki horien ondoan desfi-

latzen ikustea ikusgarria izan zen. Ondoren denek Herriko Enparantzan danbor eta barrilen soinuak dantza egin zuten elkarrekin, etorritako gainerrako konpartsak harrিতuta utziz. Horrelakorik ez zutela inoiz ikusi adierazi zidaten bai eta egun hartan bizitakoarekin hunkituta zeudela ere.

Nik, bukatzeko, Erretereria-Oreretako Musika Kultur Elkaratearen Zuzendaritzari eta bere zuzendari den Yosu Mitxelenari eskerrak eman nahi nizkieke. Era berean, eskerrak eman nahi nizkieke Alaberga eta Telleri-Aldeko haur danborraden Zuzendaritza taldeei, festa ikusgarriagoa egiteko eta gure herriak ikuskizun handiaz gozatzeko aukera izan zezan gure erraldoi eta buruhandien bilkuran parte hartzeko aukera izango ote zuten galdetu nienean izandako jarrera onarengatik.

Bukatzeko, esan beharra dago irudien dotoreziak bertaratu zen jendearen mirespena sortu zuela. Gauza bera gertatu zen banden soinuak entzutean zein erraldoi eta buruhandiak mugimendu alai haiekin dantzari ikusi genituenean. Bertan zeudenak liluratuta utzi zituzten, eta erraldoi eta buruhandien konpartsa guztien dantzak bukatzean txalo zaparrada beroekin erantzun zieten.

Eskerrak bederatzigarren bilkurako parte hartzaileei zein Orereta-Erretereriako herritarrei, jai honi eskaini dioten harrera ona zein maitasun adierazpenarengatik.

Parte hartu duten konpartsak: Palentzia, Zamora, Kanbo, Irun, Orereta-Erretereria eta Pontikako auzokoa, zazpina kiloko eta bi metro eta erdiko Maialen eta Xanti erraldoi txikiekin, Victor Domínguezekin eginak. Erraldoiak auzoko haurrek eramane zituzten: Joseba Garmendia, Mikel Díaz, Xavier Cuadrado eta Víctor Domínguez (semea).



